

Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1997ko azaroak 28

Usurbil, 31. Zenbakia

**Joxe Luis Zumeta:
pinturak askatasuna
ematen dit**

HILDAKOAK

1997-11-15
Asteria Mayordomo Lozano
 90 urte
 Muna Lurra kalea



1997-11-22
Maria Lizarreta Irastorza
 81 urte
 Aginaga



1997-11-22
Kasimira Lizarreta Irastorza
 73 urte
 Aginaga

Osasun zerbitzua

Asteleheneretik ostiralera

8.00-8.30 Lasarteko Osasun Zentrua
 8.30-14.30 Usurbilgo Osasun Zentrua
 14.30-17.00 Lasarteko Osasun Zentrua

Larunbata

9.00-9.30 Lasarteko Osasun Zentruan
 9.30-10.30 Usurbilgo Osasun Zentrua
 11.00-17.00, Lasarteko Osasun Zentruan

Larrialdiak

17.00-8.00 Hernaniko Osasun Zentruan

Telefonoak: Usurbil 361543

Lasarte 361540 Hernani 557766

JAIOTZAK

Ander Bereziartua Buenetxea
 (1997-11-07)
 (Kaleberri)

EZKONTZAK

M^a Soledad Hernani Zabalo (Kaleberri)
 eta
Jose Kruz Franco Leiza (Elduaien)
 (1997-11-08)

EUSKO TRENBIDEAKEN AUTOBUS ORDUTEGIA

ASTEGUNETAN						ASTEBURUTAN		
Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Zarautz
07.40	08.05	08.25	06.45	07.05	07.30	07.30	07.55	08.15
08.00	08.25	08.35**	07.15	07.35	08.00	08.30	08.55	09.15
08.40	09.05	09.25	07.45	08.05	08.30	09.30	09.55	10.15
09.00	09.30	09.40 *	08.15	08.35	09.00	10.30	10.55	11.15
09.40	10.05	10.25	08.45	09.05	09.30	11.30	11.55	12.15
10.40	11.05	11.25	09.20**	09.30	10.00	12.30	12.55	13.15
11.40	12.05	12.25	09.45	10.05	10.30	13.30	13.55	14.15
12.00	12.25	12.35**	10.20*	10.30	11.00	14.30	14.55	15.15
12.40	13.05	13.25	10.45	11.05	11.30	15.30	15.55	16.15
13.00	13.30	13.40 *	11.45	12.05	12.30	16.30	16.55	17.15
13.40	14.05	14.25	12.45	13.05	13.30	17.30	17.55	18.15
14.00	14.30	14.40**	13.20**	13.30	13.55	18.30	18.55	18.15
14.40	15.05	15.25	13.45	14.05	14.30	19.30	19.55	19.15
15.00	15.25	15.40*	14.20*	14.30	15.00	20.30	20.55	20.15
15.40	16.05	16.25	14.45	15.05	15.30	21.30	21.55	21.15
16.40	17.05	17.25	15.20**	15.30	15.55	22.30	22.55	22.15
17.41	18.05	18.25	15.45	16.05	16.30			
8.00	8.30	8.40*	16.20**	16.30	17.00	Zarautz	Usurbil	Donostia
18.40	19.05	19.25	16.45	17.05	17.30	06.45	07.05	07.30
19.00	19.25	19.35**	17.45	18.05	18.30	07.45	08.05	08.30
19.40	20.05	20.25	17.45	18.05	18.30	08.45	09.05	09.30
20.00	20.30	20.40*	18.45	19.05	19.30	09.45	10.05	10.30
21.00	21.25	21.45	19.20*	19.30	20.00	10.45	11.05	11.30
22.00	22.30	22.50	19.45	20.05	20.30	11.45	12.05	12.30
			21.15	21.35	22.00	12.45	13.05	13.30
						13.45	14.05	14.30
						14.45	15.05	15.30
						15.45	16.05	16.30
						16.45	17.05	17.30
						17.45	18.05	18.30
						18.45	19.05	19.30
						19.45	20.05	20.30
						20.45	21.05	21.30
						21.45	22.05	22.30

*Orioraino bakarrik

**Aiaraino joaten da

*Oriotik irtetzen da

**Aiatik irtetzen da



- Udala
- Udaltzaingoa
- Anbulategia
- Udarregi ikastola
- Agerialde ikastetxea
- Oiardo kiroldegia
- Zumarte musika eskola
- Etumeta euskaltegia

- 37 19 51
- 36 11 12
- 36 20 13
- 36 12 16
- 36 38 95
- 37 24 98
- 37 15 94
- 37 20 01

- Taxi geltokia
- D.Y.A.
- Gurutze Gorria
- Gure Pakea egoitza
- Gure Elkarte egoitza
- Arrate egoitza
- Eusko Tren informazioa
- **Noaua!** aldizkaria

- 36 21 78
- 46 46 22
- 27 22 22
- 37 32 28
- 37 17 51
- 36 63 40
- 47 09 76
- 36 03 21

Zer irizten?

Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

Argitaratzailea: Noaua!
Kultur Elkarte. Kale Nagusia,
37 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa (943) 36 03 21.
e-mail:
mandio@redestb.es

Zuzendaria: Olatz Altuna.
Kazetariak: Ainhoa Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Garikoitz Udabe.
Kolaboratzaileak: Pedro Mari
Matxain, Ines Kamino, Leire
Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe
Begiristain, Amagoia Mujika,
Xabier Arregi, Pako Agudo,
Alfontso Vidal, Nieves
Aranburu, Luis Aranalde, Zalao
Arnaiz, Maribi Arrospide eta
Agurtzane Solabarrieta.
Administrazioa: Arantxa
Usarralde, Aitor Pikabea eta
Nerea Kamino. **Eredakzio**
Kontseilua: Olatz Altuna,
Garikoitz Udabe, Jose Jabier
Furundarena, Iñigo Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Ainhoa Azpiroz.

Maketazioa eta diseinua:
Susana Martin eta Aitziber
Elortza. **Argazkia:** Joxe Antonio
Labaien. **Informatika:** Pili Liza-
so. **Banaketak:** Mertxe Jimenez,
Txelo Vidal eta Iker Muguruza.
Elektrikaria: Iñaki Salsamendi
Sukaldaria: Joxe Mari Sarasola,
Tirada: 2.200 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza,
Industrialdea 1 - 2, 20.160
Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak
ez du bere gain hartzen aldiz-
karian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik.

**AZALA: Jose Luis Zumeta
pintorea**



Eman eta zabal ezazu munduan fruitua

Patxi Arruti

Usurbilgo odol emaileen elkarteko kidea

Eman eta zabal ezazu mun-
duan fruitua... Esaldi ederra,
eta guk zuei luzatzen dizuegun
eskaria. Zer da gure lana? Ba
horixe!

Gure zainetan daramagu bes-
teen osasuna zain edo senda-
tzeko balio duen odol prezia-
tua. Odola ez da makinetan
lortu daitekeen merkantzia,
gizakiok gure barruan darama-
gun motorra baizik. Horregatik,
pertsona bat gaixo dagoenean,
gaitz edo istripuz, eta sendatze-
ko odola behar duenean, non-
dik eta nola lortu behar du ope-
razio edo tratamendu horreta-
rako odola?

Erantzuna bakarra da: gure-
gandik. Erantzun motza, lehorra,
baina sakona. Bertan azaltzen
baita gizakiok bata besteenga-
tik, agian gu ere egunen bate-
an behar horretan egokitu gin-
tezke, egitea daukagun zerbitzu
ederraren oinarria.

Begira dezagun ingurura. Nork
ez du ezagutzen, bizirik iraun
dezan, odol horren beharra izan
duen etxeko lagun, auzotar edo
pertsonaren bat? Ebakuntza
egiteko batzuk ez dute itxaron
beharrik, beste batzuk, ordea,
bai, . Hor dago gure lanaren
oinarria. Odolak egon behar du
behar duenaren zain eta ez gai-
xoak odolaren zain. Gure alde-
tik, guztiok, zerbait jartzen bada-
gu sendatzeko bidean azkarra-

go jarriko dugu gaixoa.

Bide batez, gaur egun egiten
ez diren mediku tratamenduan
gehiago sakontzeko erraztasun
gehiago izatea lortuko dezake-
gu. Odola eta bere osagarriak
gero eta gehiago erabiltzen
direnez, odola beti behar izan-
go da.

Odol emaile izatea erraza da:
18 eta 65 urte bitartekoa izan
behar du, 50 kilo baino gehia-
gokoa, eta gaixoardi batean
ezin du egon momentu horret-
an. Hala ere, garrantzitsuena
falta zaigu: odol emaile izateko
nahia eta borondatea. Odol
emanaldi guztietan mediku
baten babesa duzu eta berak
argituko dizkizu izan ditzazkezun
kezka guztiak. Ez utzi biharko,
gaur egin dezakezuna.

Aurten, izan diren sei emanal-
dietan 0.4 litroko 335 odol poltsa
bildu ditugu eta 17 emaile berri
eduki ditugu gure artean. Urtero
egiten dugun moduan, aben-
duaren 8an ospatuko dugu herri
mailako Odol Emaileen eguna.
Salbatore elizan, 11.30etako
mezetan, gure kide izan diren
guztiak gogoratuko ditugu.
Ondoren Patri jatetxean izango
dugu bazkaria.

Mila esker taldekide guztioi,
bai emaile, bai laguntzaileei
ere. Zuen babes eta laguntzarik
gabe ekintza hau aurrera era-
matea ezinezkoa da.



Usurbilgo Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria

365
bazkide ditu Noaua!k.
Zu ere egin zaitetz
bazkide

Bejondeizula Matia!

Ez genuen Matia ezagutzen erreabilitazio mailan. Gure attona ariketa berezien behar-rean gertatu delako, sei hilabetetan egunero bueltaka ibiltzea tokatu zaigu.

Eta usurbildarron aldizkaritik **mila esker** esan nahi diegu, batetik hainbeste denboran erreabilitazio ariketen aukera emateagatik, eta bestetik eskaini diguten tratu goxoagatik.

Ez luke harriztekoa izan behar, baina harridura eta poza sentitu dugu gure zaharrak, eta konkretuki gure attona nola zaindu duten ikustean. Barre ugari, adar jotze franko, zer nolako umorea! Realak Bartzelonan galdu egin zuela eta karamelu xorrokada eman behar, apustua galdu zuelako... Ze polita!

"Muxu ugari eman eta gero miña" zioen attonak, baina zein garrantzitsuak diren muxu hauek, batez ere adin honetan. Lurdes, Tiburtxio, Idoia Uxuri, Begoña... guztioi **bejondeizuela!**

P.I

Euskalduna eta erdaraz?

Herriko euskararen erabilpen murriztasun oharturik eta kezkatuturik, Usurbilgo EHEek egoera hori salatzen kanpaina bati ekingo dio, zenbait ekintzen bidez plaza-ratuko duena.

Izan ere, XXI. mendearen aitariari gaude eta Euskal Herriak ez du oraindik lortu bere buruaren jabe izatea. Herri bat gara baina ez zaizkigu onartzen berez dagoz-kigun eskubideak. Estatu zapaltzaileek abertzaletasuna ilundu eta Euskal Herriaren aldeko borroka gaitzetsi egin nahi dute. Oraindik ere, hizkuntza arrotzen itzalak ez dio euskarari hazten uzten.

Bernat Etxeparek aspaldi esandako "euskara jalgi hadi plazara" leloak ez du gaurkotasunik galdu. Hizkuntza baita lurralde bati Herri izaera ematen diona. Ezinezkoa da euskaraz jakin ezean euskalduna izatea, hitzak berak dioen legez, euskara-duna baita euskaldun. Era berean, euskaldun ez den abertzaleak edota euskalduna izanik ere, euskaraz hitz egiten

ez duenak, Euskal Herriaren aldeko jarduna mantsotu eta ahuldu egiten du, euskara zokoratuz ideologia zapaltzaileei mesede egiten zaie eta.

Hizkuntz-gatazka Herri gatazka da; auzi honi ekitea gizarte osoaren, eta bereziki abertzaleen ardurara eta erantzunkizuna da, abertzale erdaldunak izanik ez baitugu inoiz helburua lortuko.

Zer zentzu dauka GORA EUSKADI oihukatzeak ondokoarekin erdaraz ari garen bitartean? Zertarako balio du seme-alabak ikastolara bidaltzea, etxean eta kalean erdaraz hitz egitera behartzen baditugu?

Abertzaleok euskaraz egin behar dugu. Gure hizkuntzaren egoera normalizatzen badugu burujabetasunerantz urrats garrantzitsuak emana izango baitugu. Etxean, kalean, lanean... euskara da abertzaleon tresnarik eraginkorrena

"EUSKARA DA GURE TERRITORIO LIBRE BAKARRA!!"

Usurbilgo EHE

xirrikitutik



AEKko talde hau **Noaua!**ra etorri zen joan den azaroaren 20an. EGA titulua atera asmoz lanean dihardute eta beraien euskara maila hobetzeko ahaleginetan **Noaua!**ri buruzko hainbat galdera egin zizkiguten.

SERIGRAFIA
T A N P O G R A F I A

LOSU

Ugaldea poligonoa 36 - 2^a Esk
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

INDUSTRI ETa
IRA GARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA

ZUMET A MENUAK
(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Itsaskientsaladahozber oatrufa zaporez
- Zapatxangurr ozbeteriketaitzaski saltsaz
- Aspizunapatata pur e, onddo eta pikilopiperraz haragi saltsatan
- Etxekoazkenburukoendegustazioa
- Ardo bereziaetakafea

ZUMET A JATETXEA
Txoko alde, Tel.: 36 27 13

3.200 pta.

xabier
aristegia

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 36 19 78



AITOR ARRUTI BELDARRAIN

Santueneakoa dugu 27 urteko gazte hau. Arotza da ofizioz eta kirolzale amorratua afizioz. Gaur egun eskubaloian eta hondartzako futboleant jokatzeko beta aurkitzen du, nahiz eta denbora libre gehiegirik ez izan.



Harritzekoa, Santueneakoa eta eskubaloi jokalaria.

Badakit ez dela oso orijinala. Santuenean beti ikusi izan dugu eskubaloia eta azkenean koadri-la osoa sartu ginen taldean. Hala ere, gu txikitant ez genuen eskubaloira jokatzeko, futbolera eta beste jolas batzuetara baizik. Ez uste Santuenean eskubaloia bakarrik ezagutzen dugunik, eh? Duela 17 edo 18 bat urte hasi nintzen jokatzeko, eta oraindik hortxe nago.

Eta oraindik uzteko asmorik gabe, ezta?

Iaz erabaki nuen utzi egingo nuela, baina azkenean aurten ere jarraitu egin dut. Uzteko erabakia lesioengatik da, orain nabaritu egiten baitira hainbeste urteren ondoren. Lehen mina hartu eta deskantsatzen egon beharrean segituan hasten nintzen jokatzeko. Izugarritzako astakeriak egin ditut lesioekin eta horrek faktura pasatzen du. Ziurrenik hau izango da nere azken denboraldia, baina ez nago ziur.

Eta kirolaz kanpo, zer?

Eskubaloiarekin batera dantzan ere hasi nintzen. 22 edo 23 urte arte egon naiz gainera, taldea desegin zen arte. Orain tarteka ezkontzaren batean edo egiten dut dantza, gehiago ez. Mesede moduan egiten dira horrelakoak. Baina nahiz eta dantza asko gustatu, hala ere nahia-go kirola.

Benetan berezia izan behar du zuretzat eskubaloiak.

Bai, betidanik gustatu izan zait lehiaketa, irabaztea... Gainera, oso giro ona izaten da taldean eta bide batez, lanetik "deskonektatu" eta dena ahaztu egiten duzu. Niri behintzat primeran etortzen zait.

Horregatik jokatzeko duzu futboleant ere?

Ja hiru urte hasi nintzen hondartzan futboleant jokatzeko, eta asko gustatzen zait. Hala ere, aukeratzekotan dudarik ez nuke egingo, eskubaloia aukeratuko nuke. Niretzat oso kirol osoa da: indarra behar da, asko parte hartzen duzu...

Izugarritzako zartadak ematen dizkiozue elkarri partidu bakoitzean. Nola menderatzen duzu jenioa?

Bati daude indarra "gehiegitxo" erabiltzen dutenak, baina horietatik paso egitea da onena. Nik behintzat hori egiten ikasi dut, zeren gazteago nintzenean gehiago "berotzen" nintzen. Baina orain arte behin bakarrik atera didate txartel gorria.

Eta noiz izaten duzu ba lanerako beta?

Hortarako beti dago denbora, ziur. Txikitatik nekien gainera arotza izan nahi nuela. Donostian ikasi nuen, praktikan hasi eta gaur arte berarekin nabil lanean. Etxe berrietan ateak, zokaloak e.a. jartzen ditugu. 9 edo 10 ordu lan egiten ditut.

Eta telebistan kirola bakarrik ikusten duten horietakoa al zara?

Gehienetan bai, baina filmeak ikustea ere gustatzen zait. Ez pentsa eskubaloia bakarrik ikusten dudunik, edozein kirolekin konformatzen naiz.

Badirudi orain eskubaloiak garrantzia hartu duela ezkontza bat medio...

Bai. Begira, aurten epaile ikastaroa egin dut Gasteizen eta gure irakasleak jada aurreikusituen zein garrantzi izango zuen Urdangarinen ezkontzak. Eta halaxe izan du. Hori bai, jokalaria ona denik ezin uka.

MAHUKA



GAZTE DENDA
Modako arrop
neguaren atari

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 36 11 06

Haur jantziak

Pauma

Kale Nagusia, 2 Tel. 36 5943

Barruko arropa-tiak eta
etxe arropak

Aritzeta kalea, 1
telefonoa: 36 17 87

TXOKOALDE

Iñaki
LabakaPerretxiku ugari
Andatza aldean

Azken urte hauetan perretxiku bila joatea modako bihurtu da inguru honetan, eta Txokoalde ere ez da atzean gelditzen. Azken asteetan **Andatza** aldean **ontto bila** dabilzanak asko dira eta otarra betearekin jeisten ere ikusi ditugu, gero afari merienda ederra egin asmoz.

Hilaren 21ean, ostiralean, pasadizo polita izan genuen Txokoalden. **Joxe Loidi** ere perretxiku bila joan zen goizeko 8.00ak aldean. Bizikleta hartu, bidean gora joan, eta bide bazterrean bizikleta utzi ondoren mendi aldera abiatu zen erlojurik gabe. 14.00etan ez zen oraindik etxera azaldu. Etxekoak kezkatzen hasi ziren eta bere bila hasi ere bai. Azkenean 15.00ak aldera han azaldu zen, lasai-lasai, bere bizikletarekin.

Zorioneko aparkalekua egin behar digutela badakigu, eta eskerrak. Izan ere, azken aste hauetan **gero eta kotxe gehiago** dagoela dirudi. Elkarren kontra jotakoak ere badira, kolpe txikiak dituzten kotxeak ere asko. Eskerrak aparkalekua egin behar duten, bestela...



KALEBERRI

Ines
KaminoAsteburuko kronika:
ezer ez ta festa

Gabonak gerturatzten ari zaizkigunean, festa giroa berotzen hasia dela dirudi. Azaroaren azken bigarren asteburuan, **ekitaldi ugari** izan dira frontoi inguruan. Hasteko, **ostiralean**, umeak izan ziren protagonista nagusiak. Eguraldi txarrari aurre egin asmoz, **zirko txiki** batek bere emanaldia eskaini zuen herriko pelotalekuan. Arratsaldeko 18.00etan hasita animalirik gabeko zirkoarekin gozatu zuten hurrek. Telebistako marrazki bizidunetako pertsonaia ezagunak, bizikleta gainean oreka mantentzen iaioa zen gizona... ikuskizun polita ostiral arratsaldekoa.



Igande arratsaldean, berriz, garai batean egiten zen moduan, **erromeria** izan zen frontoian. Garai batean frontoian zegoen egurrezko eserleku haundi haren gainean ez zuten jardun, garai hartako soinu-jotzaileak ere ez ziren, baina **jende ugari** bildu zen. Izan ere, **Alaitz eta Maider** bikote famatuaren ametsezko doinuak entzun eta dantzatzeko aukera paregabea izan zen igandean. Frontoia jendez gainezka zegoen, ba zen garaia, eta dantzari finak ere

begiztatu genituen tartean.

Azkenik, eta nire tarte honekin amaitzeko, beti bezala, eraikuntza lanak aipatu beharko ditut. Azken bi asteetan **kale nagusian** ez da giro. Tiriki tarraka soinua etengabea dela esan digute, **gasaren hodiak jartzen** ari direnez zuloa egitea beharrezkoa baita. Autobus geltoki aurrean hasi ziren eta eliza parean daude ni hau idazten ari naitzen behintzat.

ATXEGALDE

Amagoia
MujikaBide, espaloi...
azpiegitura berria

Atxegaldeko urbanizazioa adjudikatzeko baldintzak onartu dituztela esaten zen **Noaua!**n aurreko alean. Atxegalde-tarrantzat berri bikaina. **Azken urteetan itzaroten ari ginen berria** izan da hau. Atxegalde 1970-1980 hamarkadan egin zituzten etxeekin sortu zen, eta garai hartako urbanizazioarekin jarraitzen dugu oraindik. Egindako lanek akats ugari zituztela, gauza jakina da, krisi ekonomikoaren eraginez edo, ahalik eta merkeen egindako obrak zirelako. Laister, guztia berrituko dute. Bide guztiak, espaloiak... azpiegitura guztia erabat berritzeko asmotan da udala. Honela, **140.851.572 pezetako aurrekontua** izango du Atxegalde urbanizazio berriak.

Bestalde, Udarregi ikastolako plazara begiratu eta saskibaloian jokatzeko **saski berriak**

jarri dituztela konturatu nintzen aurreko batean. Badirudi, orain dela hilabete bat inguru jarri zituztela, baina ni bezala jakin gabe daudenak asko izango direnez, kronika honetan aipamena egitea bidezkoa iruditu zait.

Ahaztu gabe. Zumartegi industrialdean **panel berria** jarri dute. Bertan, zonalde industrial honetan dauden enpresa, tailer etab.-en kokalekua adierazten da. Ah, bai, euskaraz gainera.

URDAIAGA



Leire Atxega

Bertedero zaharra erdi hutsik

Garai batean Urdaiagako zabor toki zaharraren egoera tamalgarria zela esan nuen. Orain, ezin esan horrelakorik. Atalluko lanak egiten hasi zirenetik **bertedero osoa hustu** dute. Kamioien joan-etorria etengabea izan da, eta piskanaka-piskanaka dena hustu dute. Momentu honetan han dagoen **zuloa** ikusgarria da benetan. Hala ere, esan beharra dago: duda izpirik gabe, lehen baino itxura hobea du orain. Aurrerantzean txukun mantenduko dugulakoan nago.

Bestalde, ehiztarien tiro hotza etengabea da Urdaiagan. Ehiza denboraldiarekin batera tiroen musika nagusitu da inguru honetan. Zenbat kartutxo aurkituko ote ditugu Andatzara joan ezker? Joan eta jakin!

SANTUENEA



Alfontso Vidal

Atalluko lanekin aurre-ra eta atzera

Bideak nabarmentzen ari dira piskanaka-piskanaka. **Atalluko** lanen nondik-norakok agerian daude orain behintzat. Hainbeste hauts eta lokatzen ondoren, **azpiegitura** nolakoa den ikusten da behintzat. Bideak eginda daude. Oraindik txukuntzea falta da, baina bai Santueneara joateko erabiliko den bide berria eta baita zonalde industrial horretan egongo diren bideak zehaztuta daude.

Laister batean Santueneako zubira arte **bide berria** izango dugula esan nuen beste batean ere. Izan ere, zaharra, Ingemarrek bere lantokirako erabiliko du. Oinez ibiltzen direnek eskertuko dute behintzat, espaloia ere berria egingo baitute. **Oraingoaren egoera lotsagarria** da benetan.

Atallun egiten ari diren lanen ondorioz gero eta hondatua-ego egoteaz gain, euria egiten duenean putzu haundiak sortzen dira espaloian.

Azkenik, Santueneara oinez doazenentzat, udalak **zubi berri bat** egin nahi duela entzun dugu nonbait. Beraz, zaharra ibilgailuentzat izango litzateke, eta zubi berria oinezkoentzat.



ZUBIETA



Xabier Arregi

Bihurguneak zabaltzeko lanen adjudikazioa

Zubietako bideko **bihurgune** arriskutsuenetan obrak egiteko asmoa aspaldiko kontua da. Gure bide hauetan egoten den mugimendua ikusita, bihurgune zital horietan ikusmena hobetuko lukeen zerbaitegitea bidezkoa ikusi zen.

Asmoa egi bihurtuko da laister batean. **Aurrekontuak zehaztu dira**, baldintzak ere onartu dira



eta lanen adjudikazioa konkurtora atera da. Aurrekontua bost milioi pezetakoa izango da eta lau bihurgune konponduko dituzte. Santueneatik abiatzen bagara, **Amiri** gaineko bihurgunea izango da konponduko duten lehenengoa. **Artzabaleta txikiko** bihurgune gaizto hori izango da bigarrena. Izan ere, bidearen zati hau oso gaizki dago. Ez alde batetik eta ez bestetik ez da ikusten zer datorren eta askotan bozina jo behar izaten da leku honetan. **Etxetxo** baserri aurreko bihurgunea ere konponduko dute eta **Iruin berri** aurrekoa izango da hobetze lanak egingo dituzten azken bihurgunea. Lan hauek egindakoan, Zubietara joateko bidearen egoera asko hobetuko da, dudarik ez izan.

H erorrek esan



Marina Prieto

Atxegalde

Gainean bizi diren bizilagunei kalterik sortzen ez badie orain duten ordutegia ondo iruditzen zait. Hori bai, lokalak insonorizatu egon behar du. Bizilagunak kexatuko balira, orduan bai moldatu beharko liratekeela ordutegiak.



Joxe Maiz

Eguzkitza

Ez zait sekula taberna inporta izan eta ez daukat ideiarik ere gai honi buruz. Inporta ere ez zait batere inporta.



Inaxio Furundarena

Kaleberri

Gaizki iruditzen zait, mozkor gehiegi ibiltzen baita gauean. Orain neska eta mutilak gaueko 12etan hasi eta goizeko ordu txikiak arte ibiltzen dira, eta hori galerazi egin beharko litzateke. Gaueko 12 ak arte nahikoa denbora badago parrandan egiteko, gu hala ibiltzen ginen. Hortik pasa ezkerro egurra izaten genuen guk.



Placeres Lorenzo

Santuenea

Parranda egiten duenarentzat ordutegia luzatu egin ebahrko litzateke. Baina taberna beti taberna da eta bizilagunen kexak ere beti izango dira. Ni, ordea, ordutegia zabaltzearen aldekoa naiz.



Agurtzane Alkorta

Atxegalde

Indarrean jarri nahi duten ordutegi berria oso gaizki dagoela iruditzen zait. Jendeak nazkatu arte egon behar duelako tabernetan. Alde batetik 4ak edo 5etan itxiko liratekeen tabernak egon beharko lukete, eta gero beste batzuk, pub antzekoak goizalderarte irekiak egongo liratekeenak. Bestela, onenean zaudenean ea zer egiten duzun!



Arantxa Bereziartua

Arratzain bidea

Nik uste dut ordutegiak zabaldu egin beharko liratekeela murriztu beharrean. Oraingo ordutegi berria oso motza da. Tabernak gutxienez goizeko 4 edo 5ak arte irekita egon beharko lukete.



Jose Beristain

Bizkarre

Nire ustez ordutegiak murriztu egin beharko lirateke. Zeren tabernetako soinuak loa eragozten die inguruan bizi direnei. Eskerrak nik tabernik ez daukadan azpian!



Rafa Ledesma

Olarriondo

Nik uste dut ordutegia luzatu egin beharko litzatekeela, gazte jendeak ondo pasatzeko aukera behar duelako. Gainera, ez dut uste soinuaren aitzakia kexatzeko arrazoia denik, gaur egun hori saihesteko modua badago eta.

Telesforo Ardoak



Zure mahairako egokienak

Kale Nagusia, 25
Telf. 36 12 20



Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Xabier Carbayeda eta Goyo Martin

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA



TEL. 36 61 97

PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak eta afariak

Nagusia, 6
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)

Autoenplegu ekimen berriak bultzatzen

Azken urte hauetan **Auto-nomi Elkartean** ekonomia etengabe hazi da, baina aldiz, ez da lanpostu gehiegi sortu. Autoenplegua alternatiba bilakatu da besteren kontura lan egitea ezinezkoa bihurtu zaieneztat. Hori dela eta, norbanakoaren nahia eta taldeen ekimenak jaso nahi ditugu enpresak sortzen laguntzeko. Horretarako, **Usurbilgo Udalak Enplegu Sustapen Zerbitzua**ren barnean aholkularitza eta formakuntza eskainiko die enpresa sortzeko ideiarene bat dutenei.

Hau guztiagatik, Udalak eta Bultz-Lan Consulting enpresak lankidetzak konbenioa sinatuko dute. Enpresa hau Caritasek sortu zuen duela urte batzuk, erdi eta behe mailako kualifikazioa duten pertsonen ekimenak bultzatzeko asmoarekin. Honela, konbenio honen arabera, Udalak ondorengo funtzioak beteko ditu:

-Langabetu eta promotorei lankidetzak honen berri ematea.

-Udaleko Enplegu Sustapen bulegoan jasotzen diren autoenplegu proiektuen azterketaren ondoren hauek Bultz-Lan Consulting-era bideratzea.

-Enpresa ekimen berrien bultzatzaileei aholkatzea.

-Bi sinatzaileen artean asesoratuko proiektuen koordinaketa, jarraipen eta ebaluaketa.

Bultz-Lan Consulting-ek beriz, bere teknikoak jarriko ditu proiektu bakoitzaren negozio planaren garapen eta proiektuen jarraipenerako. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Autoenplegu laguntzak jasotzeko derrigorrezkoa den "Enpresa kudeaketa" ikastaroa emateaz ere arduratuko dira. Bai ikastaroa eta bai negozio planaren garapen eta jarraipena Usurbilen bertan egingo da. Hau egiteko, Eusko Jaurlaritzak 2.700.000 pezetako dirulaguntza eman dio Udalari.

Proiektu zabala

Ekimen honetan jende askok parte har dezake:

-Besteren kontura lan egiteari utzi diotenek baina lan merkatuan duten ofizio edo jarduerari buruz behar adina ez

dakiten langabetuek.

-Sortzen diren enplegu barruti berrietan negozioa egiteko egon daitezkeen aukerak kontutan hartzen dituzten proiektuek.

-Entrepresan ardura haundiagoak hartu nahi dituzten enpresariene seme-alabek.

-Negozio ildo berri bat ireki nahi duten langile edo enpresariak.

Hau da, edozein ikasketa maila duen langile nahiz langabetuari dago zuzendua. Baldintza bakarra autoenplegurako ideiarene bat edukitzea da eta hau garatzeko beharrezkoa den kalifikazio profesionala izatea.

Dagoeneko irekita dago Enpresa Kudeaketa ikastaroan parte hartzeko izenematea. Autoenplegurako ideia bat baldin baduzu anima zaitetz eta galde-tu ezazu udaletxean. Beharrezkoa duzun informazio guztia emango zaizu. Neregana etorri besterik ez duzu.

Bestetik, abenduaren 17an Bultz-Lan Consulting-eko teknikari batek gai honi buruzko hitzaldia emango du Udarregi zaharrean, arratsaldeko 18.00etan.

Josune Mujika.

Monitore soziolaborala



Lb T

HARATEGIA

Atxega Alde, 34
Usurbil

☎ 36 57 42

AGINAGA

Elkarri itsatsitako etxebizitzak eraikitzen goaz

- Lau logela
- Bi autorentzako garajea eta txokoa
- 200m²ko lur saila

Kalitate oneko eraikuntzak - Zuzenean eraikitzailearengandik

Informazio gehiago obretan bertan
edo telefono hauetan: 58 09 66 - 64 39 14

BARATZA

FRUTADENDA

Aukera zabala
zure eskura

Eguzkitza, 4 USURBIL
Tlf. 36 49 81

Jose Luis Zumeta: "Egunero lan eginez aurkitzen da estiloa"

Joxe Luis Zumeta txokoaldefarraren izena estuki dago pinturaren munduari lotuta. Berarentzat margotzea lanbidea baino gehiago da, eta hori erraz ikus daiteke bere erantzunak irakurrita.

Zer eman dizu pinturak?

Niretzat pintura bizitzeko modu bat da. Nire bizitzaren izugarriko zatia da. Ez bakarrik pintura lanbide bezala, baizik eta pinturak berarekin dakarren bizitza eta askatasuna. Ez dago fitxatu beharrik, ez daukazu nagusirik ez eta langilerik. Hori da askatasuna. Nik bakarrik mugatzen dut nire askatasuna.

Nolatan sartu zinen mundu horretan?

Txikitatik gustatu zaidan zerbait izan da. Ja 14 urterekin hasi nintzen era profesionalean margotzen "Graficas Valverde"n, baina 18 urterekin erabaki nuen pintore izan nahi nuela. Lan hura utzi eta nire aldetik beste behin behineko lantxoak egiten hasi nintzen: pankartak, zineko kartelak...e.a. egiten nituen. Diru horrekin pintura eta materiala erosten nuen eta nire lanak egin ahal izaten nituen. Horrela ikasi nuen margotzen.

Nolakoak izan ziren zure hasiera haiek?

Zailak. Gainera garai haiek oraingoak baino gogorragoak ziren. Orain pinturak beste prestijioa hartu du. Orduan erokeria bezala hartu zuen hemengo jendeak, txorakeri bat bezala. Normala da baserri edo fabrika giroko herri batean hori gertatzea. Gainera, garai haietan baserri batean bakarrik bizi nintzen eta esames haundiagoak sortarazten zituen horrek. Hori bai, piska bat probokatzeko ere koadro bat amaitzen nuenean etxeferoa botatzen nuen, beraz jendeak bazuen zeresana.

Eta nola aurkitzen du bakoi-

tzak bere estiloa, bere bidea?

Denborarekin. Ezin duzuna da proiektu finko bat buruan eduki eta esan "hau egin behar dut". Eguneroko lanak markatzen du bakoitzaren lana eta horren poderioz estilo bat sortzen duzu. Egunero lana eginez, zure estilo pertsonala aurkitzen duzu.

Ba al dakizu alde zuretzat zer egin behar duzun?

Ez. Gutxi gora behera zerbait izaten duzu; ideia bat, kolore bat... Koadroa hasten duzunean erreferentzi horrek irudimena piztu egiten dizu, gogoia sortzen dizu. Erreferentzi horri jarraituz forma bat sortzen da, eta hortik beste bat, eta beste bat... gutxia osatu arte. Baina azken batean koadroak bere gisa sortu behar du, izan ere, amets bat ezin da kopiatu.

Eta nola egiten duzu lan?

Hemen azken batean orduak sartu eta itxaron egin behar duzu ea noiz ikusten duzun zerbait eta horri jarraitu. Batzuetan berotu eta "ti-ta" batean, bi orduan koadro bat amaitu egiten duzu. Baina bestetan mantxo-mantxo egiten duzu lan. Erritmo desberdinek dira. Hala ere, nik normalean lana azkar egiten dudala esan daiteke, hobeto ateratzen zait horrela. Lehen gauetan jaikitzen nintzen margotzera, baina orain ez. Azken batean ohitura batzutan sartzen zara eta hor jarraitzen duzu.

Orduan ez al zarete hain arraroak artistak?

Pintorearen mito erromantiko hori nolabait egiazkoa da, baina oso gutxitan


gertatzen da. Hor ere literatura asko dago sartuta.

Zein dira koadroak egiterakoan gehien erabiltzen dituzun gaiak?

Niretzat oinarritzkoa kolorea da. Kolorearekin formarekin baino gehiago lan egiten dut. Forma gero, egin ahala sortzen da. Kolorea da batez ere niri gehien eragiten nauena. Berarekin sentimendua sartzen dut eta gainerakoak bere mar-txa jarraitzen du.

Beste pintoreen eraginik ba al duzu?

Pilo bat. Ezingo nituzke guztiak aipatu. Euskal Herrikoen artean Balerdi oso garrantzitsua izan da niretzat. Baina eragin hori ez da zuzena, hau da, ez da pintorea kopiatzea, hori kaltegarria izaten da. Beste artistek ireki egiten zaituzte, askatasuna ematen dizute. Izpiritua duen lanak ikutu egiten zaitu eta gero zure erara sartu egiten duzu zure lanean



izpiritu hori. Zerbait piztu egiten dizute barnean lan horiek.

Koadroez gain beste lan batzuk ere egiten dituzu.

Bai, adibidez Bertso txapelketarako eta Che Guevararen aldeko kontzertuko kartelak nik egin ditut. Lan hauek egitea gustatzen zait, zerbait desberdina egiteko aukera ematen dizulako. Deskantsu bat da niretzat. Gainera, normalean lagunarteko gauzak egiten ditut, besterik gabe.

Soldaduzkara bolondres joan omen zinen.

Bai, Parisera lehenago joan ahal izateko. Paris artean mundu osoko artearen hiriburu zen (1959. urtea zen) eta bertara joatea erabaki nuen. Maila horretan Espainia eta Euskal Herria hilda zeuden, informazio gutxi eta zentsura asko baitzegoen. Parisen beste arnasa hartzen zen. Han ikasi egin nuen, eta ikusiz ikasi. Sorpresa ikaragarriak hartu nituen, izan ere guk ezer ez genuen ikusi ordurarte, hona ez zen ezer ailegatzen. Orain informazioa toki guztietara iristen da. Orduan ezinbestekoa zen kanpora ateratzea.

Munduan zehar erakusketak egin dituzu. Zertarako balio dute gehiago, koadroak sal tzeko edo ezagutzera emateko?

Erakusketak, jendeak koadroak ikusteko egiten dira batez ere. Noski, saltzea beharrezkoa da, baina azken batean koadroak ikusteko dira. Niretzat tristen zure lanak inork ez ikustea da.

Eta zaila egiten al zaizu zure arte lanetatik urruntzea?

Bai, baina ez diot kasu haundiegirik egiten, bestela askorekin geratuko nintzateke. Adibidez, aspaldi kartoiekin egin nituen papiroei debozio haundia diet, eta hauek ia guztiak ditut.

Askotan jendeak ez ditu ulertzen zure lanak.

Artea edozeinek uler dezake, baina saiatu gabe ezin da ulertu, noski. Guk ezin duguna egin

guztiak da ulertzeko moduko mailara jeistea. Jendeak egin behar du ahalegina; eta hori informazioaren bidez egiten da; zer egin da mende honetan...e.a. Bestela jauzia izugarria izaten da.

Eta nola nabaritzen da koadro bat ona ala txarra den?

Normalean koadroa ona denean, ona da. Batzuetan "kameloa", alegia, ziria, hasieran erreza da aurrera ateratzen, baina luzera jota ezinezkoa da, hori nabaritu egiten da. Hala ere, denboraren poderioz koadro baten balioa ere alda daiteke. Garai batean hain onak iruditzen ez zitzaizkizunak balioz gora egiten dute, eta onak zirela uste zenituen beste batzuk berriz behera.

Beharbada guretzat frontoi atzeko lana da ezagunena. Nola sortu zitzaizun ideia hau?

1973 eta 1974. urte bitartean egin nuen lan hau. Urte horretan frontoi atzeko baratzak bota zituzten etxeak egiteko eta orduan, frontoiko pareta oso nabarmena geratu zen, agerian. Udalak esan zidan bertan zerbait egiteko eta pentsatu ondoren, jo eta su ibili nintzen lanean urte betez. Ilusio handia nuen zerbait haundia egiteko, eta gainera herrian izanda...

Obra hau berezia izango da orduan.

Dudarik ez. Gainera oso ondo irau duela iruditzen zait forma eta kontzeptu aldetik. Izan ere 25 urte ondoren irautea asko da. Herrian integratu egin dela ikusten dut. Garai hartan horrelako lan bat herrian egitea konpromezu haundiko lana zen, inguruarekin ondo konpondu behar zuen, eta uste dut hori lortu nuela. Hori bai, bere esanahiagatik galdetzen badidazu bakoitzak berea eman behar diola esango dizut.

enheim eta Kursala?

Nik nahiago ditut alde positibotik ikusi. Azken batean EEBB-



etako sukurtsal bat da. Hori bai, hemengo diruarekin egina, baina sukurtsal bat da azken finean. Kontuan izan behar da beti amerikarrak aginduko dutela.

Eta itxura aldetik?

Arkitektura biak izugarriak iruditzen zaizkit. Bata espresionismo hutsa da, eskultura bat bezalakoa da. Besteak berriz minimalista kutsua du, sinpleagoa da. Hauen eragina ona izango dela uste dut, gizartea mugituko dutelako.

Zein da gaur egun euskal artisten maila?

Uste dut maila polita dagoela. Hala ere orain kutsu akademiko gehiago dago, Arte Ederren ikasketak direla medio, horrek nortasuna galdu arazi egiten duela uste dut. Baina hori ikasitakoa ahaztuz berreskuratzen da. Artista batek beti ikasten aritu behar du. Lehen autodidaktak ginen, bakoitza bere kabuz ikasi eta moldatu ginen. Balio duenak akademikotasun hori gaintetik kenduko du, eta balio ez duenak klaseak eman-go ditu.

Irungo Hiria literatur saria Yolanda Arrietarentzat

Yolanda Arrieta usurbildarrak, euskarazko elaberriari dagokion lehen saria eskuratu berri du Irungo Hiria literatur lehiaketan. Bizkaiko Etxebarrin jaio eta azken lau urteetan Usurbilen bizi den idazleak, "**Jostorratza eta haria**" lanarekin irabazi du sari garrantzitsu hau. Euskarazko elaberrien sailean 7 lan aurkeztu ziren lehiaketara, eta epaileek erabateko adostasunez eman zioten sari hau Yolanda Arrietaren "**Jostorratza eta haria**" lanari. Elaberri honetan emakumezkoak dira protagonista bakarrak. Ama batek, bere baitan duen alabari, prehistoria eta 2000. urte artean gertatutako historia ezberdinak kontatzen dizkio, beti ere galdera baten inguruan: genetikoki heredatutako zerbait gara edo bizitza aurrea doan neurrian sortu eta garatzen gara?



Alkatea atxilotu zuten joan den azaroaren 20an



Joxe Antonio Altuna, herriko alkatea, **atxilotu** zuten joan den **azaroaren 20an**. Goizeko 8.00ak aldera, Donostiako Entzutegira eraman asmoz Ertzantza etorri zitzaion bila bere etxera eta hara eraman eta ondoren aske utzi zuten. 1996an udalak **Espainiako ejerzitoarekin ez kolaboratzeagatik** deklaratzera joateko bi dei jaso zituen Donostiako Entzutegitik, baina alkateak joateari uko egin zion. Beraz, epaileak Joxe Antonio Altuna atxilotzeko agindua eman ondoren derrigorrez deklaratu behar izan zuen. Alkateak esan digunez, "*Usurbilgo udalak ez kolaboratzeko hartu duen bidea ezin da delituztat hartu, aho batez onarturiko erabakia baita*".

Jende ugari Zumarte musika eskolaren kontzertuan

Zumarte musika eskolak Zezili Deunaren eguneko **Zkontzertua** eskaini zuen joan den azaroaren 21ean. Herriko musikariek **Zezili Deunaren bezperan** egindako saioa ikusi eta entzun asmoz jende ugari hurbildu zen parrokiara. Eskusoinu, bibolin, piano, saxofoi, klarinete, txistu... mota guztietako instrumentuen doinu gozoak entzuteko aukera paregabea izan zen ostiralekoa. Ez hori bakarrik, saioaren amaieran Zumarteko koralak abesti polit bat kantatu zuen, dantza eta guzti gainera. Zumarte musika eskolak urte osoan zehar haur eta gazteekin egiten duen lanaren islada izan zen kontzertu hau.



PORTUARRAINS



**ITURGINDEGIA
BAINUKO
ALTZARIAK**

Kale nagusia, 2-2-2D
Tlf. Denda 36 46 37
Etxea 36 52 99



**TXIRIBOGA
TABERNA**

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 - Tlf. 37 00 13

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



GENERALI
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak
zure zerbitzurako

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

SANTI MINTEGI USURBIL- GO ANBULATEGIKO PEDIATRA BADIJOA

Sei hilabete inguru Usurbilgo anbulategian egon ondoren, **Santi Mintegi** pediatra badoa Bizkaia aldera. Usurbilen egin duen denbora horretan oso harrera ona izan du, bai haur eta bai gurasoen aldetik. Azaroaren 28tik aurrera ez dugu anbulategian topatuko, Lezamarako bidea hartua izango baitu ja. Beraz, abenduaren hasierarako, pediatra berria izango da anbulategian.



Izugarrizko jende pilo bildu zen pasa den ligandean frontoi inguruan. Aspaldian frontoiak ez zuen horrelako betekadarik izan, alajaina! Arratsaldeko 6etan, puntu-puntu hasi ziren **Alaitz eta Maider** beraien panderoa eta trikitixa astintzen. Jendea ere ez zen atzera geratu eta animoso aritu zen jira eta bueltaka kantari. Hori bai, onenean geundenean agur esan ziguten bi abeslariak. Puntualitate britaniarraren jarraitzaileak izango dira, nonbait.

1998KO INTSUMISIOA EGUNA USURBILEN IZAN DAITEKE

Zehaztu gabeko erabakia da oraindik, baina aukera hau aztertzen ari da Kakitzat intsumisio taldea. Guk jakin ahal izan dugunez, datorren urteko **Intsumisio eguna Usurbilen** egiteko aukera aztertzen ari da Kakitzat talde antimilitarista. Hala ere, oraindik zurrumurru hutsa da guztia, eta datozen asteetan jakin ahal izango dugu Intsumisio eguna Usurbilen egingo den ala ez.



Negu giroa hurbiltzen hasia den honetan, elur Nusaina ere inguratzen ari zaigu. Horren adibide garbia dugu joan den azaroaren 20an Batis Goikoetxea eta Miguel Angel Otxoak aurkeztu zuten "**Hiru handi mendiko eskian**" diapositiba emanaldia. Posets, Aneto eta Monte Perdido tontorretan eski-trabesia egitean ateratako irudi ikusgarriak ikusi ahal izan ziren Andatza K.K.E-k antolatutako emanladi honetan.



Aurten ere huts egin dute Usurbilgo muslariak. Eginek antolatzen duen Euskal Herriko mus txapelketaren bigarren kanporaketarako sailkatuta zeuden bost bikoteetatik inork ez zuen lortu azken faserako txartela. Usurbilgo kanporaketan Aginarrak nagusitu zirela esan genuen; Oialumen jokatu zen kanporaketan, ordea, **Anjel Mari Beristain** eta **Justo Pulido** fin aritu ziren eta finalerako txartela oso gertu izan zuten.

USURBIL

O P T I K A



Irazu kalea, 9-11. 20170 Usurbil
Tlf. eta Faxa: 37 02 69(Gipuzkoa)

SALTXIPI



*Txokoalde, z/g
Usurbil*

Tlf. 36 11 27 - 37 10 94



Denboralditxo bat gure artean igaro ondoren Lezama aldera itzultzen zaigu Mintegi pediatra jauna. Ea hemen egin-dako merituak errepikatzen dituzun lehoi txikien artean. Bejondeikela eta segi horrela! Eskerrik asko Santi, alias "xebe".
Zure lankideak.

KIROL KOPLA



Joxe Mari Ikutza

Urtearen amaiera gainean dugu ja. Andatza K.K.Eko aurtengo mendi irteera nahiz diapositiba emanaldiak egin dute ia berea. Horrela, bada, dagoeneko datorren urterako federatu txartela ateratzeko garaia iritsi zaigu.

Iaz ez bezala, federatu txartela ateratzeko bi aukera ditugu datorren urterako:

-Urtero bezala Espainiako federazioaren bidez (FEDME)

-Aurten lehenengo aldiz Euskadiko federazioaren bidez (EMF).

Ezberdintasunak zeintzuk diren? Euskadiko federazioaren bidez ateratzen badugu, 1000 pezeta merkeago aterako zaigu maila guztietan. Segurua berdina izango da, Euskal Elkarte Autonomoko aterpeetan, Belagua barne, beharpenak izango ditugu. Baina hori bai, Espainiako federazioarekin lotuta dauden abantaila guztietatik kanpo gelditzen gara: Espainiako federazioaren aterpeetan beharpenik ez, honek antolatutako ekintzetan ere ez...

Hala ere, badago beste aukera bat: Euskadiko federazioaren bidez federatu txartela atera ondoren, urtean zehar Espainiako lizentziak dituen onurak jaso nahi badituzu, Euskal federazioa joan, 1000 pezeta ordaindu, eta zigilu berezi baten bidez abantaila horiek eskuratuko dituzu.

Gure bazkide bakoitzak erabaki dezala zein txartel nahi duen. Guk bi kuotak banatuko ditugu.

Zesta puntaren gailurrean

Karlos Aizpurua, "Troiako Kerbia", zesta puntako klubaren arteko Espainiako txapelketaren **finalerdietara** iritsi da. Andoaingo Gazte Leku taldea ordezkatzuz, azaroaren 29an, Palentzian, Nafarroako Cabanillas taldeko bikotearen aurka jokatuko dute lehen finalerdia.



Finalerdietara iristeko, ordea, aurrez pelota talde ezberdinen artean ligaxka jokatuko behar izan dute. Galiziako talde bat, Bartzelonakoa bestea eta Andoaingo Gazte Leku, etxean eta kanpoan jokatuz, nor baino nor jardun dira. **Karlos Aizpuruak** aurrelari jokatuko du eta finalerdietarako txartela eskuratu ondoren pozik zegoen. "azkenengo partiduan erabaki zen guztia. Galziarren kontra kanpoan irabazi eta etxean galdu egin genuen.

Bartzelonarren aurka, berriz, han galdu ondoren, finalerdia jokatuko ahal izateko hemen garaipena beharrezkoa genuen. Azkenean irabazi egin genuen eta Palentzian jokatuzeko aukera izango dugu".

Azaroaren 29an, larunbatean, finalerdia jokatuko dute Nafarroako Cabanillaseko bikotearen aurka eta garaipena eskuratzen badute igandean bertan jokatuko dute finala. Karlosen esanetan finalean sartzeko aukera badute, "pelotarien partidua ikusten ibiltzen den batek irabazi dezakegula esan digu. Badakit ze bikote den, iaz ere finalerdietara iritsi baitziren". Irabazten badute Zumaiako taldearen aurka edo galiziarren kontra jokatuko dute finala.

Josu Aranberri



URTINEA LORATEGIA

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tlf. 36 22 55

ZENDOIA - ENEA

 TABERNA 

Goizeko 7etatik irekia

Gosariak, hamaiketakoak, eguneroko menuak eta bokatak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 36 25 60

Buru-azalar enzainketa
Ile-apainketa

Etxebeste, 3

Tel. 37 16 85

Eskubaloi taldea: historia eta etorkizun haundia

1963. urteko udaran hasi zen Usurbilgo Eskubaloi taldea lehen beroketak egiten. Harrez geroztik makina izerdi bota eta sari ekarri dizkio herriari.

Esteban Iribar, Eskubaloi taldeko kideak horrela azaldu dizkigu hasiera haiek: "*Gazte koadrila batek kirol talde bat sortzea beharrezkoa zela erabaki zuen. Orduko alkateak, Joxe Irasuegik ere ekimen hau bultzatu zuen eta honekin batera Jexux Artze eta Joxe Luis Pagola izan ziren taldearen bultzatzaile nagusiak, azken biak eskubaloian jokatzeko bazekitelako*". Izan ere, garai hartan eskubaloia kirol ezezaguna zen, Donostia, Hernani, Pasaian eta Irunen jokatzeko besterik ezean. "*Igandero frontoian entrenatu eta jokatzeko zuten. Mezetatik atera eta denok joaten ginen hauek ikustera*".

Lehen denboraldi hartan, 63-64an, eskubaloiko lau talde osatu ziren: mutil eta nesken helduen taldeak, mutilen jubenil taldea eta mutilen infantil taldea. Guzti hauek entrenatu zituen **Jose Joakin Azpeitia**, Txatxin, izan zen.

Talde guztiak Gaztedi-Usurbil izenpean jokatu zuten 1969. urte arte. Urte horretan Kirol Elkartea izena hartu zuten. Urte berean ere frontoiko estalkia eraikitzen hasi ziren eta bitartean Orio eta Michelinen jokatzea behar izan zuten;

Santueneko eskubaloi zelaia eraiki bitartean.

Bere bizitza luzean, txapelketa eta sari asko irabazi ditu eskubaloi taldeak. Hala nola, Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketak. Bestetik, Gipuzkoa, Euskadi eta Espainiako selekzioetarako jokalaritza ere izan da.

Emaitza onak

Eskubaloi taldearen denboraldirik onena 94-95 izan zen. Urte honetan Bigarren nazionalerako nesken taldea eta mutilen kadete taldea Euskadiko txapelketa geratu ziren, lehendabiziko aldiz. Bigarren nazionalerako nesken taldea, gainera, lehen nazionalera pasa zen, nahiz eta gero desagertu. Bestetik, mutilen jubenil taldeak Gipuzkoako txapelketa irabazi zuten.

Zortzi talde izan badira ere, gaur egun lau taldek osatzen dute eskubaloi taldea: bigarren nazionalerako mutilen tal-

dea, jubeniletako neska eta mutilen taldeak eta mutilen kadete taldea.

Eskubaloien diru iturri nagusiak Kirol Patronatuaren dirulaguntza, bazkideen kuota (200 bazkide inguru ditu) eta errifak dira. Estebanek azaldu digunez, "*gure aurrekontua hiru milioi pezetakoa da gutxi gora behera, eta gastu gehienak bidaietan joaten zaizkigu, autobusean. Bestetik, jokalaritza bakoitzari segurua egin behar zaio, eta gainera epaileak ere ordaindu egin behar dira. Azkenean jokalariekafari batera gonbidatzeko dirua bakarrik geratzen zaigu*".

Eskubaloi taldeak sustrai sendoak ditu herrian, bertatik jende ugari igaro baita. Gainera, poz haundiak ekarri dizkigu eta badirudi aurten ere hala izango dela: "*Uste dut emaitza onak izango ditugula aurten, taldeak sendo baitaude*".

Idoia Torregarai



Bigarren nazionalerako taldea da mailarik altuenean jokatzeko duen taldea. Gainera, maila honetan jokatzeko dabilen talde beterranoena da.

Laurok
Liburuak eta zuzenbidea

ALPERROBURU KALEA-BEHEA
20170 USURBIL TLF 36 34 48

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 37 08 78

20170
USURBIL



Aginagako eskolarentzat irtenbidea aurkitzen

Betidanik (edo behintzat **Baspaldidanik**) izan dute Aginagarrek eskola beren auzoan. Gaur egun hamar bat haur dabilza eraikuntza honetan ikasten, baina ez denbora askorako, bertan frontoia eraikitzeke asmoa baitago.

Proiektu hau eta eskolaren egoera txarra dela medio, irtenbide bat aurkitzen saiatzen ari dira Guraso elkarte, Udala eta Gipuzkoako Eskola Publikoen ordezkariak.

Alkateak azaldu digunez, bi irtenbide egon daitezke: "Alde batetik ez du merezi eskolan gastu haundiak egitea, daukan etorkizun txikiarengatik. Horregatik pentsatu dugu elizaren lokalak eskolarako erabiltzea izango litzatekeela onena. Hau da, eskola Arrate egoitza dagoen eraikuntzara pasatzea. Elizarekin betiko egingo genukeen kontratua bidez lortuko genuke hori. Era honetan, alde batetik erabiltzen ez diren lokal batzuei erabilpena emango genieke eta bestetik elizarentzat ere diru iturria izango litzateke. Oso toki aproposa da".

Honez gain, beste irtenbide bat ere ikusten du Joxe Antonio Altunak: "Printzipioz, frontoiaren proiektuan eskolak eta aldamenean dagoen maixu-etxea ere botatzea aurreikusten da. Baina berez frontoia maixu-etxetik zortzi bat metrotara geldituko litzateke, beraz, beste irtenbidea, hasierako proposamena aldatu eta maixu-etxea eskola bezala erabiltzea izango litzateke".

Guraso Elkartearen kezkak

Guraso Elkartearen kezkak

Guraso elkarte, ordea, oso kezkatuta dago gai honekin. "Guk betidanik ezagutu izan dugu eskola Aginagan eta bertan ikasi dugu askok. Gure haurrek eskubidea dute bertan ikasteko eta horregatik guztiaren gainera eskolak Aginagan jarraitzea nahi dugu. Oraingoz bai alkateak eta bai Gipuzkoako Eskola Publikoen ordezkariak hau ziurtatu digute. Baina bestalde, ez dugu onartuko eskola elizaren lokaletara pasatzea. Ikusten dugulako oso zaila dela betiko kontratu bat egitea. Gainera, Udalak elizari ordainduko liokeen errentarekin hobe litzateke eskola berria

egitea. Maixu etxeko aukera ere ez zaigu egokiena iruditzen, etxe horrek hezetasun haundia duelako eta ez dagoelako egoera onean. Eskola bertan jartzekotan, guztiz berriro beharko litzatekeela uste dugu".

Guraso elkarteko kideek ziur dakite zer ez duten nahi. Baita ere zer nahi duten: "Ez dugu erdipurdiko irtenbiderik nahi. Horregatik, eskola egiteko tokirik aproposena eliza zaharra dela uste dugu. Duela gutxi teilatua konpondu diote eta laster kanpoaldea berrituko diote. Hil honen amaieran edo hurrengoaren hasieran arkitektoa etorriko da eskolaren egoera ikusi eta bide batez eliza zaharra ikustera. Azken batean guk nahi duguna gure seme-alabak ahalik eta toki onenean ikastea da. Hala ere, azken erabakia guztion artean hartu behar dugula badakigu".



Ekaitz

Bideo eta Argazki

Usurbil

tlf 36 14 87

oiartzun



kafe berezia

ETXE-ALDIA, 1

TLF 36 27 70

20170

USURBIL

Lehiaketa

Txoko eta bide ezezagunak topatzen ditugu askotan. Beste batzuetan, oso ezagunak izanagatik ahaztuta edukitzen ditugu. Bidexka hau ere hala edukiko duzue agian. Baina memoria pixka bat frexkatu eta esango al diguzue;

Nondik nora doa bide hau?

Badakizue erantzunak Kale Nagusiko 37. zenbakiko buzoian jasoko ditugula eta asmatzaileen artean **Antxeta jatetxean** bi pertsonentzako afaria zozketatuko dugula. Animatu!



Sorpresa ederra hartu omen zuen **Victoriano Furundarenak Zumeta jatetxeko** afaria egokitu zitzaioela jakin zue-nean. "Eta sorpresa atsegina, gainera! Horrelakoak beti gustura hartzen dira".

Aurreko zenbakiko lehiaketako argazkian oso argi ikusten zen "Bereziartza bitartea" sarreraren goiko alde. Guztiok ezagutu duzue gainera lekua: Sanestebango ssanatorioa da.

Esan bezala, bidali duzuen guztiok asmatu duzue erantzuna, baina **Tragoxka** tabernako afaria bati egokitu behar eta oraingaon **Aroa Bengoetxea** kalezartarrari. Zorionak!

komikia



Zaloa Arnaiz

JUANTXO
Burdindegia



Kalenagusia, 10
Usurbil

37 00 08

Egin ezazu zure publizitatea **Noaua!**ko orrietan

BITXITEGI
ARREGI
ORDUKARI



Kale Nagusia, 2
Tif. 36 40 58

TABERNA
JATETXEA



ANTXETA

EGUZKITZA, 4
TEL: 37 03 44
20.170 USURBIL

A genda

AZAROAK 28 ostirala

- **Senideak-en manifestazioa.** Arratsaldeko 20.00etan.

AZAROAK 29 larunbata

- **Larrua Truken kontzertua Elizondon.** Beraiekin batera, Skalariak eta PILT taldeak izango dira.

ABENDUAK 1 astelehena

- **Euskal Herria askatu!**-ren konzentrazioa arratsaldeko 20.00etan errotondan.

ABENDUAK 2 asteartea

- **Senideaken ibilaldia** gaur iritsiko da herrira. Ibilaldiari harrera Ostapeko sarreran egingo zaio ordu batak aldera, eta ondoren, ongi-etorri ekitaldia frontoian egingo da. Ibiltariak bazkaldu ondoren laurak aldera Orío aldera abiatuko dira. Hernanin amaituko da egun honetako ibilaldia, arratsaldeko 20.00etan. Ekitaldietan parte hartzera gonbitzen zaituzte Senideakek.

ABENDUAK 5 ostirala

- **Larrua Truken kontzertua Elorrión.**

ABENDUAK 8 astelehena

- **Euskal Herria askatu!**-ren konzentrazioa arratsaldeko 20.00etan errotondan.
- **Udalak eta herriko zenbait tabernek antolatuta, Izotz taldearekin dantzaldia.** Arratsaldeko 18.00etan herriko plazan.

OHARRAK

- ✓ **Guraso eskolak partaidetza zabaldu** nahi du. Zure izaera hobetu eta aberastu nahi baduzu, zure seme-alaben heziketaz arduratu nahi baduzu; zure egi-

Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak abenduaren 8an ospatuko du herri mailako **Odol Emaileen eguna**. Horretarako, Salbatore elizan 11.30etako mezetan kide guztiak gogoraziko dituzte, eta ondoren, Patri jatetxean bazkaria izango dute emaille guztiek.



tasmok besteekin eta besteen-tzat zabaldu nahi badituzu, jar zaitetz kontaktuan berarekin. Deitu Milagrosi: 36 41 80 edo Txarori: 36 13 83.

- ✓ **Belarritakoa galdu da.** Urrezkoa, izkina txuria eta perlarekin. Santu guztien egunean galdua. Hilerritik frontoirako bidean edo frontoian. Telefonoa: 36 52 61.
- ✓ **Etxe bat alokatzen** da, altzari eta guzti. Kontzejuzarra kalean. Deitu 37 14 95 telefonora.
- ✓ **Garajea salgai** daukat Etxezurin. Interesatuok, deitu 36 41 80 telefonora.
- ✓ **Pisu bat alokatzen da** Bilboko alde zaharrean. Unibertsitateko autobusetik gertu dago. 37 31 17 Uxo.
- ✓ **Garajea salgai** daukat Galtzaragañan. 33m². Kostu prezioan. Telf. 37 18 27.

LANPOSTUAK

- ⇒ **Neska euskaldun bat** behar da haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuak deitu 37 27 76 telefonora.
- ⇒ **Oñatiko Udalak aerobic monitore bat** behar du. Eskerak aurkezteko epea abenduaren 24an amaitzen da. Informazio gehiago GAOko 219. zenbakian.

zaten da. Informazio gehiago GAOko 219. zenbakian.

- ⇒ **Emakume batek jatetxeren batean platerak garbituko lituzke.** Aste egunean goizez eta igandetan egun osoz. Telf 36 57 81.
- ⇒ **Errenteriako Udalak bi administrari laguntzaile, ingurugiroko teknikari bat eta bi operari** behar ditu. Izena emateko epea abenduaren 19an amaitzen da. Informazio gehiago GAOko 222. zenbakian.
- ⇒ **Errenteriako Udalak 7 udaltzain** behar ditu. Eskerak aurkezteko epea abenduaren 12an amaitzen da. Informazio gehiago GAOko 217. zenbakian.
- ⇒ **Errenteriako Udalak errenterari bat** behar ditu. Eskerak aurkezteko epea abenduaren 12an amaitzen da. Informazio gehiago GAOko 217. zenbakian.
- ⇒ **Errenteriako Udalak notifikatzaile bat** behar ditu. Eskerak aurkezteko epea abenduaren 12an amaitzen da. Informazio gehiago GAOko 217. zenbakian.
- ⇒ **Usurbilgo Udalak podologia zerbizuzaren gestioa** lehiaketara ateratu du. Epea abenduaren 11an amaitzen da. Informazio gehiago edo GAOko 211. zenbakian.



MAITE
BERASALUZE
EZKERRA

"apelliduak abizendu"
Guk lagunduko dizugu, zatoz guregana!

Noaia!!
HAMAROTTERAKIA

USURBILGO UDALA
EUSKARAREN AHOLKU
BATZORDEA

EUSKAL HERRIAN
EUSKARAZ
84 postakutxa
Usurbil

AZAROAK 28 ostirala

- **Eskuz 4 t'erdian** binakako txapelketako finalerdiak. Gaueko 8.00etan hasita.
 - Jon Sarasua-Santxo
 - Aintzi anaiak
 - Iker Mujika-Igor Uribe
 - Koldo Lertxundi-Inaxio Arruti

AZAROAK 29 larunbata

- **Eskubaloit partidua** jubenil mailan (n): **Usurbil- La Salle Legazpi**. 16.30etan Oiardo kiroldegian.
- Bigarren nazionalako **eskubaloit partidua** (2N): **Usurbil- E.H.U.** 18.00etan Oiardo kiroldegian.
- **Eskubaloit partidua** jubenil mailan (m): **Loyola- Usurbil**. Loyolako kiroldegian.
- **Eskubaloit partidua** kadete mailan (m): **Loyola- Usurbil**. Loyolako kiroldegian.
- **Futbol partidua** emakumezkoen errejional mailan (n): **Arrasate.- Usurbil F.T.**
- **Futbol partidua** erregional mailan (m): **Usurbil F.T.- Groseko** Harane futbol zelian
- **Futbol partidua** kadete mailan Harane futbol zelaian(m): **Usurbil F.T- Tolosa "B"**
- **Areto futboleko partidua** (m): **Aiako- Xabier Edaritegia** Zarautzko kiroldegian. 15.30etan
- **UGA-k antolatutako frontenis txapelketa**. Arratsalde partean.
- **Saskibaloiko partidua** (M): **Etxadi-Frudisk- Usurbil S.T.** Donostiako Pio Baroja kiroldegian arratsaldeko 16.00etan.

AZAROAK 30 igandea

- **Futbol partidua** jubenil mailan (m): **Usurbil F.T- Ilintxa**. Harane futbol zelaian
- **Hondartzako futbol partidua** Kontxako hondartzan(m): **Aginaga Sagardotegia- Diskos Azoka**
- **Kadete eta junior mailako karateko Gipuzkoako txapelketa** Oiardo kiroldegian (kata eta kumite modalitateak). Goizeko 9.30etan.

ABENDUAK 2 ostirala

- **Areto futboleko partidua** (m): **Xabier Edaritegia- Iraurgi kirolak**. Oiardo kiroldegian 8.45etan hasita.

ABENDUAK 3 larunbata

- **Futbol partidua** erregional mailan (m): **Texas Lasartearra.- Usurbil F.T.** Lasarteko Michelingo futbol zelaian arratsaldeko 15.30etan.
- **Futbol partidua** (n): **Usurbil F.T.- Ostadar**. Harane futbol zelaian arratsaldeko 15.30etan.
- **Futbol partidua** kadete mailan (m): **Texas Lasartearra- Usurbil F.T.** Lasarteko futbol zelaian
- **Futbol partidua** jubenil mailan (m): **Bergara.- Usurbil F.T.**
- **UGA-k antolatutako frontenis txapelketa**. Arratsaldean.

ABENDUAK 4 igandea

- **Saskibaloit partidua** Oiardo kiroldegian. **Usurbil- Mundarro** Goizeko 10.00etan.

EMAITZAK

FUTBOLA

Azaroak 15-16

Zumaiako **5** - Usurbil F.T **1** (n.)
Usurbil **2** - Aloña Mendi **3** (ju.)
Euskalduna **2** - Usurbil F.T **3** (ka.)

Azaroak 22-23

Gwendoline **2** - Usurbil F.T **1** (2.R.)
Usurbil F.T **1** - Antoniano **1** (n.)
Almen **3** - Usurbil **0** (1.ju.)
Usurbil **6** - Danena **1** (2.ka.)

ESKUBALOIA

Azaroak 15-16

Usurbil **34** - Deusto **26** (2.N.)
Ereintza **21** - Usurbil **26** (ju.m)
Ereintza **21** - Usurbil **15** (ka.m)
Usurbil **12** - Hernani **17** (ju.n)

Azaroak 22-23

Egia **25** - Usurbil **28** (2.N.)
Usurbil **22** - Elgoibar **32** (ju.m)
Usurbil **27** - Elgoibar **24** (ka.m)

SASKIBALOIA

Martiko Amigos **72** - Usurbil S.T **38**
Usurbil S.T. **53** - Haurtzaro **80**

ARETO FUTBOLA

Axular. **2** - Xabier Edar. **2**
Lasarte Kirolak **2** - Xabier Edar. **2**

HONDARTZAKO FUTBOLA

Aginaga Sagar. **3** - Basmo **2**

4 T'ERDIKO TXAPELKETA.

Igor-Iker / Paulino-Hernani 18-10
Santxo-Jon / Juantxo-Eneko 18-13
Koldo-Inaxio / Gorka-Josu 18-8
Iantzi anaiak / Leko-Labaien 18-11

Laburdurak

R.: errejionalak ka.: kadeteak
N.: nazionala n.: neskek
ju.: jubenila m.: mutilak



BAZKIDE TXARTELA

5000 pezeta urte osorako

Izena: _____
1.Abizena: _____
2.Abizena: _____
Helbidea: _____
Herria: _____
Tfnoa: _____
Kontu Korrontea (20 digito): _____



taberna

Irazu kalea, 12
Tel.: 36 02 17

**Abenduaren 1etik aurrera
goizeko 7 t'erdietan irekiko dugu**

Eskaintza berriekin!

GOSARIAK

- Zukua
- Kafesnea
- Kruasana

350 pta.



- Zuku naturala
- Kafesnea
- Tostadak
 - Mermelada
 - Gurina

350 pta.

MERIENDAK

Eta orain
arte bezala...



- Txokolatea
- Txurruak

300 pta.

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK